

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Foruzaingoko jardunaldien eta ordainsarien araudi berria larunbat honetan indarrean sartuko da

*Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartu du araudi berria, eta Foruzaingoko 1.000 agente baino gehiagori aplikatuko zaie*

Asteazkena, 2016.eko irailak 28

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Foru Dekretu bat onartu du, eta bertan, Foruzaingoko jardunaldien eta ordainsarien araudi berria jasotzen da. Araudi hori datorren larunbatean, urriak 1, indarrean sartuko da.

Araudi berria apirilaren 10eko Nafarroako Polizien Foru Legea aldatzen duen 15/2015 Foru Legea aplikatzearen

ondorioa da; haren bidez, ordainsarien gaia gainerako funtzionarioen izaera orokorrean xedatukoari egokitzeko eskatzen zen.

Aldaketa honen helburu nagusia Foruzaingoko soldata-aldeak murriztea da, eta esleitutako zenbatekoaren birbanaketa bat egitea soldata-masa handitu gabe. Gainera, araudiak 2003ko Europako zuzentarau baten edukia jasotzen du, atsedean hartzeko gutxieneko epeari eta lanaldiak irauteko epeari buruzkoa.

### Berrikuntzak

Aurrez eztabaidatutako proposamenekin alderatuz orain dagoen berrikuntza nagusia da, behin betiko araudiak Iruñeko Udaltzaingoa eta Nafarroako udaltzaingoa Lanpostuak Baloratzeko Eskuliburutik desagerrarazten duela. Eskuliburu hori foru-dekretuan sartzeak Udaltzaingoen Koordinazio Batzordearen eta Nafarroako Polizia Kontseiluaren oniritzia zuen. Nolanahi ere, bertatik kanpo utzi dira Nafarroako Kontseiluak eta Foru Araubidearen Batzordeak hala iradoki ondoren.

Bestalde, araudiak ordainsarien gaian izan dezakeen atzeraeragintasunari dagokionez, dekretuak 15/2015 Legean ezarritakora jotzen du. Alde horretatik, aipatzen du xedapen berriak urriaren 1ean indarrean sartuko direla, lege horretan ezarritakoa alde batera utzi gabe, hau da: "Erregulazio berriak ekar dezakeen enplegu bereko lanpostuen arteko balizko ordainsari-aldeak, % 7 gaintzen ez dutenak,



Araudi berria Foruzaingoko 1.070 agentera aplikatuko zaie.

atzeragintasunez 2016ko urtarrilaren 1ean aplikagarriak izan daitezela, 2016ko aurrekontuen kargura".

Foru Dekretuak (14 artikulua) 5 eranskin ditu. Bertan, eskuliburu bat ezartzen da Foruzaingoko lanpostuak baloratzeko agindutako zereginak betetzeko orduan erantzukizun, arduraldi, prestakuntza tekniko eta zailtasuneko irizpideak betetzeko. Parametro horien arabera esleitzen zaio agente bakoitzari puntuazio zehatz bat eta, aldi berean, lanpostuaren igoeraren portzentaje zehatz bat darama.

### **Lanaldia**

Araudi berriarekin bat etorritik, foruzainek urtean 1.592 orduko lanaldia izango dute. Ordu-tegi horrek honako aldaketa hauek ditu finkatutako txandak arabera:

- Goiz, arratsalde eta gaueko txandak: 1.457 ordu.
- Gauetako txanda finkoa: 1.535 ordu.
- Goiz eta arratsaldetako txandak, igande eta jaiegunak baren: 1.554 ordu.
- Lanaldi zatitua igande eta jaiegunetan lan eginez: 1.569 ordu.

Gaueko lanaldiko txandak zortzi ordukoak izango dira, gehienez ere.

Gainera, oro har, egunero gutxienez 11 ordu jarraian egin beharreko atsedena ezartzen da 24 orduko epe bakoitzean, eta zazpi egun jarraian dagoen lanaldi bakoitzeko 24 orduko gutxienezko atsedena izango da etenik gabe; horri jadanik aipatutako 11 orduko atsedena erantsiko zaio, nahiz eta sindikatuekin hala negoziatuta, atsedena araubide propio bat ezarri ahalko den.

Polizien urteko asteburuen erdiak baliatzeko eskubidea izango dute, eta urtean gehienez 29 asteburutan lan egitera behartuta egongo dira.

### **Ordainsariak**

Agenteen oinarrizko ordainsariak dira: maila, gradu eta antzinateari dagokien hasierako soldata. Horri ondorengo ordainsari gehigarriak gehitu behar zaizkio: berriazko osagarria, lanpostuaren osagarria, buruzagitza, txandak, lanaldia luzatzea eta norberaren osagarri iragankorra bigarren jardueragatik. Azkenik, beste ordainsari batzuk sartzen dira bidaiengatik, familia-laguntzagatik, aparteko orduengatik, lokalizatutako guardiengatik...

**Berriazko osagarria.** Agente guztiek jasoko dute eta haren zenbatekoa mailari dagokion hasierako soldataren % 45 izango da (polizia-bateraezintasunaren % 35 eta arrisku bereziaren % 10).

Arduraldi eskusiboa daraman lanpostuetan, berriazko osagarria % 65 izango da (arduraldi eskusiboaren % 55 eta arrisku bereziaren % 10). Ehuneko hori jasoko dute Polizia Judizialeko Alorreko, Lurralde Komisarietako Talde Judizialeko, Agintariak Babesteko Alorreko kideek, komisario nagusiek, komisarioek eta inspektoreek.

**Lanpostuaren osagarria.** Zailtasun-maila, arduraldia, erantzukizuna eta eskatutako prestakuntza teknikoa saritzen da, eta prestakuntza fisikoan erabilitako denbora ekonomikoki saritu ahalko da.

Mailaren arabera ehunekoak honako hauek dira: polizia, % 6,45; kabo, % 17; inspektoreordea, % 10; inspektorea, % 17; komisarioa, % 5; eta komisario nagusia, % 17. Enplegu bereko lanpostuen arteko kontzeptu honengatik ordainsari-alde handienak ez du % 7 gaituko.

Azkenik, urtean 126 orduko konpentsazio bat aurreikusten da edo % 10eko konpentsazio ekonomikoa finkatutako azterketa fisikoak gaituzten dituzten langileentzat.

**Buruzagitza-osagarria.** Ondorengo modalitateak hartzen ditu barnean: Arloburua, % 10; Komisaria eta Alorra, % 9; Brigada, % 7 eta Taldea, % 5.

**Txanda-osagarria.** Finkatutako zenbatekoa mailari dagokion hasierako soldataren % 6 da. Errotazioko txanda-araubidean lan egiten dutenek jasoko dute eta lanaldien heren bati baino gehiagori eragiten diena hiruhileko batean.

**Lanaldia luzatzea.** Ehunekoa mailari dagokion hasierako soldataren % 10 izango da, oro har ezarritako lanaldia baino ordu gehiagoz lan egitea eskatzen duten postuetarako.